

Zorioneko txantxa

Windows Live Mail (1) Messenger SkyDrive / MSN

Mail

Sarrera (1)

Nork: miren2-txu@gmail.com
Nori: ane_2003@euskalnet.net; jon_konpon@yahoo.es; asier_larra@bidali.eu;
eta gehiago
Gaia: Igoneren urtebetetzea

Aupa lagunok!

Dakizueenez, datorren larunbatean Igoneren urtebetetze-eguna da. Niri hainbat aldiz gogorarazten dit egunero. Apur bat astun ari da, ezta?

Beno, badakizue ilusio handia egiten diola!

Urtero jai bat antolatzen du bere etxeko sotoan eta aurten ere bai. Niri honezkero gonbidapena eman dit, zuei ere bai, ezta?

Baina ni aurten apur bat haserre nago Igonerekin; izan ere, eskolan beti ibiltzen da ni zirikatzen eta azken boladan gustu txarreko txantxaren bat ere egin dit. Badakizue zein txantxazalea den gure Igone!

Bada uste dut mendekua hartzeko unea iritsi zaidala eta zuek nahi baduzue, txantxa itzela egin ahal diogu bere urtebetetze-egunerako. Bururatu zait Igoneri esatea ezin izango garela joan urtebetetze-jaira eta gero, ezkutuan bere etxeko sotora joan eta han ustekabeko jaia prestatzea, zer iruditzen?

Horretarako bere gurasoen laguntza beharko dugu, nork hitz egin ahal du haiekin?

Espero dut Igonen txarto ez hartzea, kar-kar-kar!

Primeran pasatuko dugu!

Erantzun lehenbailehen, mesedez; izan ere, zer eta nola egin zehaztu behar dugu.

Laster arte

Mirentxu :-)



Aukeratu erantzun zuzena.

1 Zer testu mota da irakurri duzuna?

- A. Kexa-gutuna da.
- B. Oharra da.
- C. Iragarkia da.
- D. E-posta da.

2 Nork nori idatzi dio?

- A. Mirentxuk hainbat laguni.
- B. Mirentxuk Igoneri.
- C. Mirentxuk Igoneren gurasoei.
- D. Hainbat lagunek Mirentxuri.

3 Zer dela-eta dago Mirentxu Igonerekin apur bat haserre?

- A. Bere urtebetetze-jaira gonbidatu ez duelako.
- B. Igonek Mireni ez ziolako bere urtebetetzean ezer oparitu.
- C. Igonek Miren sarritan zirikatzen duelako.
- D. Igonek Ane, Jon eta Asier ere gonbidatu dituelako.

4 Zer proposatu die Mirentxuk lagunei?

- A. Mirentxuri opari eder bat erostea denen artean.
- B. Mirentxuri ustekabeko jaia prestatzea.
- C. Mirentxuri gogoraraztea oso astuna dela.
- D. Mirentxurekin eta beste lagunekin zinemara joatea.

5 Zer osagai ditu e-postak?

- A. Mezua baino ez.
- B. Mezua eta mezuaren gaia.
- C. Igorlearen eta hartzailearen helbideak.
- D. Igorlearen eta hartzailearen helbideak, mezuaren gaia eta mezua.